

## **DIRU-LAGUNTZAK JUSTUAGOAK?**

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 2an

Behean sinatzen dugun Gasteizko Elizbarrutiko apaizok, gure Elizbarrutiko zenbait parrokia-elkarteen laguntzaileak eta arduradunak garen aldetik, gure Arabako gizartean agertzen ari diren bereizkeria, nahasketa, interesez betetako manipulazioa eta alderdikeriaren aurrean eskubide osoa dugu gure iritzia emateko.

Gizarte diru-laguntzei buruz (DBE gure artean), eztabaida sortu da. Eztabaida horretan auzitan jartzen da diru-laguntzen balioa, eta murrizketak proposatzen dira; hori dena, errealitatean eman diren zenbait gehiegikeria kasutan oinarrituta. Uste dugu hainbat taldeentzat eztabaida horrek bereizkeria dakarrela; sortzen den unea kontuan hartuta, hauteskundeen inguruko interesek eraginda dagoela; eta nahasketa besterik ez duela sustatzen, ez baitago batere argi zer aldarrikatzen duen.

Lagun behartsuenak eta babesgabekoak sustatzen ditugulakoan, eta gizarte justuago eta anaitasunezkoagorantz apustua egiten dugulakoan, diru-laguntza horiek behar dituztenen alde Caritas-eko, elizako eta gizarteko beste ahots askorekin ere bat egiten dugu. Gure Apezpikuekin ere bat egiten dugu, “Bihotz errukitsua” Garizumako Gutun Pastoralean adierazten ari garen antzeko gisara proposatzen digutenean. Era berean, Elizaren Gizarte Doktrinaren aplikazio zuzena dela uste dugu; eta Frantzisko Aita Santua, “Evangelii Gaudium” bere gutuneko IV Kapituluako hainbat eta hainbat ataletan Ebangelizazioaren gizarte-alderdiaz mintzatzen denean kontuan hartzen dugu.

Amaitzeko, hori dena praktikan jarri nahi dugu. Izandako manipulazio saiakeren aurrean, adierazten dugu “Ayudas + Justas” Plataformak aurrera eramaten duen kanpaina —sinadurak jasotzen, Legegiltzarraren aurrean Herritarren Legegintzazko Ekimen (H. L. E) bat aurkezteko— EZ DELA EBANGELIOAREN ARABERAKO PROPOSAMEN BAT, uste dugulako ez dagoela Jesusen Ebanjelioak proposatzen digunarekin ados.

“Bihotz errukitsua” Euskadiko Apezpikuen Garizumako Gutun Pastoraleko 58. zenbakian adierazitakoak, proposamen horren antolatzaileei eta babesleei, arrazoiak ematen diela esaten duten irakurketa eta ulerkeria interesatuak erabat manipulatzailerik direla uste dugu. Eskatzen diegu edozein motatako borroka soziala ekiditea.

Elkarri animatzen diogu —talde bat gehiago bezala, eta gure Elizbarrutiko sines-tunen eta gure gizartearen zerbitzuan— gure iritzia emateko.

SINADURAK